

Donostia, 2018ko azaroaren 8a

145/18 PRENTSA OHARRA

IBILBIDEEN ETA GELTOKIEN ALDAKETAK AZAROAREN 11N, IGANDEA, BEHOBIA-DONOSTIA DELA ETA

Datorren **igandean, azaroaren 11n**, Behobia-Donostiaren 54. edizioa egingo dela eta, 7:00etatik 17:00etara gutxi gorabehera ibilbideetan eta geltokietan aldaketak egingo dira.

AZAROAREN 10A, LARUNBATA

Larunbatean, **azaroaren 10ean, 23:10etik aurrera**, tribuna baten instalazioa dela eta, **9-Egia-Intxaurrondo eta 25-Benta Berri-Añorga** lineen, eta **B1-Benta Berri-Berio-Añorga, B3-Egia-Intxaurrondo eta B8-Mirakontxa-Benta Berri-Seminarioa** gautxori **zerbitzuen Boulevardeko geltokiak** Legazpi kalera lekualdatuko dira gau osoan zehar.

AZAROAREN 11, IGANDEA

➤ 5-B.BERRI, 16-IGELDO, 18-SEMINARIOA ETA 25-B.BERRI-AÑORGA

- 7:00etatik 9:45era eta 15:00etatik 17:00etara gutxi gorabehera, **Boulevard eta Gipuzkoa plazako geltokiak Okendo kalera** eramango dira.

- 9:45etik 15:00etara gutxi gorabehera, amaierako geltokia **Zubieta kalean edo Londres Hotelean** egongo da. **Boulevard, Artzain Ona, Okendo kale eta Gipuzkoa plazako** geltokiak zerbitzurik gabe egongo dira.

➤ 19-AIETE-BERA BERA

- 7:00etatik 9:45era eta 15:00etatik 17:00etara gutxi gorabehera, **Gipuzkoa plazako geltokia Okendo kalera** eramango da.

- 9:45etik 15:00etara gutxi gorabehera, amaierako geltokia **Urbieta 6an** egongo da. **Artzain Ona, Okendo eta Gipuzkoa plazako** geltokiak zerbitzurik gabe egongo dira.

➤ **21-MUTUALITATEAK-ANOETA, 26-AMARA-MARTUTENE ETA 28-AMARA-OSPITALEAK**

- 7:00etatik 9:45era eta 15:00etatik 17:00etara gutxi gorabehera, amaierako geldialdia **Okendo kalean** egingo da. **Boulevardeko** geltokiak **Okendo kalera** eramango dira.

- 9:00etatik 15:00etara gutxi gorabehera, **amaierako geldialdia Urbietan** kalean egingo da. **Boulevard, Okendo eta San Martin 25** geltokiak **zerbitzurik gabe** egongo dira.

➤ **8-GROS-INTXAURRONDO**

- 7:00etatik 15:00etara gutxi gorabehera, **amaierako geldialdia Etxaide kalean** egingo da. **Boulevard eta Askatasunaren Hiribideko** geldialdiak **Etxaide kalean** egingo dira. Iparragirre, Zurriola Kursaal, Zurriola 36, Groseko Anbulatorioa eta Nafarroa 34 geltokiak zerbitzutik gabe geratuko dira. Pinudira, Vasconiara eta Ategorrietara lekualdatuko dira.

- 15:00etatik 17:00etara gutxi gorabehera, **Boulevard eta Askatasunaren Hiribideko** geltokiak **Legazpi kalera** eramango dira.

➤ **9-EGIA-INTXAURRONDO, 29-HEGO INTXAURRONDO SUR eta 42-ALDAPA-EGIA**

- 7:00etatik 15:00etara gutxi gorabehera, **amaierako geldialdia Etxaide kalean** egingo da. Kursaaletan ez da geldialdirik egingo eta **Boulevard eta Askatasunaren Hiribideko** geldialdiak **Etxaide kalean** egingo dira.

- 15:00etatik 17:00etara gutxi gorabehera, **Boulevard eta Askatasunaren Hiribideko** geltokiak **Legazpi kalera** eramango dira.

➤ **13-ALTZA**

- Erdialderantz:

- 7:00etatik 9:30era gutxi gorabehera, Nafarroa Hiribideko eta Kursaaletako geldialdiak kenduko dira eta Galtzada Nagusira eta Colón pasealekura eramango dira.

- 9:30etik 14:30era gutxi gorabehera, Casares Pasealekuko, Buenavista, Escalerillas, Herrera, Gaiztarro, Mirakruz Gaineko, Ulia, Toki Eder eta Groseko geldialdi guztiak **Ategorrieta 31n, Galtzada Nagusian eta Colón pasealekuan** egingo dira. Linea horien erabiltzaileek zerbitzua Herrera pasealekuan har dezakete, edo 8, 29 eta 31 lineak erabili alternatiba gisa, Zubiaurre pasealekuan, Erdialderantz.

- Altza alderantz: 7:00etatik 15:00etara gutxi gorabehera, **Boulevardeko eta Askatasunaren Hiribidea 21-eko** geldialdiak **Askatasunaren Hiribideko 3an** egingo dira.

***L13-ALTZA-BUENAVISTA:** 8:30etik 14:30era gutxi gorabehera, 13-Altza linearen ibilbidea egingo du (ezin izango da ibiliko Buenavistatik eta Escalerillas-etik bi norabideetan).

➤ **14-BIDEBIETA**

- Erdialderantz: Zerbitzuaren hasieratik 14:30era inguruan gutxi gorabehera, Elosegi 283, Mirakruz Gaina, Ulia, Elosegi 43 eta Ategorrieta 65eko geltokiak zerbitzurik gabe egongo dira. Linea horien erabiltzaileek 8, 29 eta 31 lineak erabili ditzakete alternatiba gisa, Zubiaurre pasealekuan, Erdialderantz.

- Bidebieta alderantz: Gipuzkoa plaza eta Askatasunaren Hiribideko 7a **Askatasunaren Hiribideko 3ra** pasatuko dira. Fernando Sasiain kaletik, Ategorrietako Erlojua, Elosegi 22, Intxaurrondo Zaharra, Mirakruz Gaina eta Elosegi 102ko geltokiak zerbitzurik gabe egongo dira. Autobusa desbideratuko da Ategorrietatik Garberaraino eta handik Bariantetik Pasai San Pedrorantz Bidebietan sartzeko.

➤ **17-GROS-AMARA-MIRAMON**

9:30etik aurrera Mirakruzetik eta Jaialaetik joango da Ategorrietaraino. Iparragirre, Zurriola Kursaal, Zurriola 36, Groseko Anbulatorioa, Nafarroa 34 eta Ategorrieta 41 geltokiak kendu egingo dira. **Ategorrieta 31 izango da hasierako geltokia.**

➤ **24-ALTZA-GROS-ANTIGUO**

- Erdialderantz, 9:30etik 14:30era gutxi gorabehera, Herrera, Gaiztarro, Mirakruz Gaina, Toki Eder eta Nafarroa Hiribideko geltokiak zerbitzurik gabe egongo dira, eta **Galtzada Nagusiko 27an eta Herrera pasealekuan geldituko dira.**

➤ **31-INTXAURRONDO-OSPITALEAK-ALTZA**

-Erdialderantz doazenean, 9:30etik 14:30era gutxi gorabehera, Zubiaurre zubiaren biribilgunean jiratu eta **8. eta 29. lineek Zubiaurren egiten dituzten ibilbide eta geldialdi berak** egingo ditu. Mirakruz Gaina, Ulia, Toki Eder eta Nafarroa Hiribideko geltokiak zerbitzurik gabe geratuko dira, eta **Ategorrieta 31ra aldatuko** dira. **Kursaaleko geldialdia Colón pasealekura** aldatuko da eta **Boulevard 13koa Askatasunaren Hiribideko 18an** egingo da.

➤ **33-LARRATXO-INTX.-ANTIGUO-BERIO**

- Berio alderantz, 9:30etik 14:30era gutxi gorabehera, Ategorrieta 65eko eta Ategorrieta 41eko geldialdiak **Ategorrieta 31ra aldatuko dira.**

➤ **37-RODIL-ZORROAGA**

-Rodil alderantz, Mirakruzetik eta Jaialaitik joango da Fernando Sasiain-eraino 33 linearen geldialdiak eginez. Norabidea aldatuko du Kotxetegietan eta bukaerako geltokia Mons-Marrutxipi geltokian (33 linea) izango du. Rodil-go **geltoki guztiak bertan behera geratuko dira**.

-Zorroaga alderantz, Mariaren Bihotza, Zurriola-Kursaal, Gipuzkoa plaza eta Askatasunaren Hiribidean ez da geldialdirik egingo, eta Ategorrieta 31-era, Galtzara Nagusira (14 linearen geltokia) eta Colón pasealekura **aldatuko dira**, eta gero Frantzia pasealekutik aurrera hartuko du bere ohiko ibilbidea.

➤ **38-ALTZA-TRINTXERPE-MOLINAO**

9:30etik 14:30era gutxi gorabehera, ezingo da zirkulatu Buenavista, Pasai Antxo eta Molinao inguruan. Geltoki hauek **zerbitzurik gabe** egongo dira: Oleta, Darieta, Buenavista, Eskalantegi 15, Eskalantegi 58, Molinao Gaina, Molinao plaza eta Darieta 141. Herrera inguruan Txingurri, Herrera Euskotren, Gaiztarro eta Elozegi 111ko geltokiak **bertan behera** geratuko dira.

➤ **41-GROS-EGIA-MARTUTENE**

Gros alderantz, Mirakruzetik eta Ategorrietatik joango da **Jaialairaino (azken geltokia)**. Hemendik aurrera ohiko ibilbidea berreskuratuko du Loiola alderantz. Iparragirre, Zurriola Kursaal, Zurriola 36, Groseko Anbulatorioa eta Nafarroa 34 geltokiak kendu egingo dira. Jaialaira eramango dira.

➤ **TB6 ULIA TAXIBUSA**

Zerbitzurik gabe 8:30etik a 14:00etara gutxi gorabehera.

- Ulia alderantz: 7:10ean eta 8:10ean irteerak egingo ditu. Ondoren, zerbitzurik gabe 14:00ak arte.

- Gros alderantz: 7:30ean eta 8:30ean irteerak egingo ditu. Ondoren, zerbitzurik gabe 14:00ak arte.

Informazio gehiagorako, kontsultatu Dbus-en webgunean (www.dbus.eus) edo jar zaitez gurekin harremanetan 943 000 200 telefono zenbakira deituta.